

304 - Idazkuntza / (II) Idazkuntzaren hasi-masiak (II.2): Kohesioa

Julia Marin Arteaga – *Freelance. Donostia.*

Formazio-planaren "Hizkuntz kalitatearen oinarriak" izeneko lehen moduluan landu ditugun hiru gaietan ("Hitz-ordena", "Puntuazioa", "Argitasuna"), perpaus-mailako kontuen inguruan jardun dugu gogoeta egiten, prosamoldean korapiloak detektatzen eta esaldi argiak idazteko jarraibideak ematen.

Bigarren moduluan, berriz, "Idazkuntzaren hasi-masiak" izenekoan, lehen urratsa eman, eta Koherentziaren erabileran trebatu gara. Baliabideak eskuratu ditugu pentsamenduaren adierazpide logikoa gauzatu eta ideien aukera, hurrenkera eta garapen egokia bermatzeko.

Oraingoan, bigarren urratsa emango dugu: "Kohesioa". Kohesioak idatziaren barne-lotura gauzatzen du. Baliabideak eskainiko dira ideiak behar bezala lotu eta haien arteko harremanak modu egokian adierazteko.

Formazio-zikloa

Ikastaroa "Idazkuntza eta Ahoskera" formazio-zikloaren atala da: 5.a, hain zuzen. (Ikus formazio-ziklo osoaren egitaraua dokumentuaren bukaeran.)

Ikasgela, Irakasbilen (www.irakasbil.eus)

Matrikula egin ostean, atariko NIRE IKASTAROAK sailera jo, eta dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatzi, matrikulatutako ikastaroan sartzeko.

Helburu orokorrak

- 1 Ideiak lotu eta harremanetan jartzeko euskarak zer baliabide dituen ezagutu eta bereiztea.
- 2 Kohesio-emaileen zerrendak aztertzea.
- 3 Gogoeta egitea uste ustelen gainean.
- 4 Kohesio-emaileen erabileran trebatzea.
- 5 Irizpide teorikoak testuetan aplikatzea.

Helburu operatiboak

- 1** Kohesioa zer den ulertzea: baliabideen definizioa. Glosarioa.
- 2** Kohesio-emaileen zerrendak aztertzea: zertarako eta nola erabiltzen den bakoitza.
- 3** Paragrafoak eraikitzea ideiak lotuz.
- 4** Ikastea nola baliatu kohesioa testuaren haria/ardatza eraikitzeko (TEMA-REMA segida).

Edukiak

1. Puntuazioa
2. Perpaus barruko kohesio-emaileak
 - 2.1 Juntagailuak
 - 2.2 Menderagailuak
3. Testuko kohesio-emaileak
 - 3.1 Lokailuak
 - 3.2 Antolatzaileak
 - 3.3 Modalizatzaileak
 - 3.4 Erreferentzia-bideak
 - 3.4.1 Izenordaina eta erakuslea
 - 3.4.2 Artikulu mugatzailea
 - 3.4.3. Zenbait adizlagun
 - 3.4.4 Ordezkapen semantikoa
 - 3.4.4.1 Errepika
 - 3.4.4.2 Sinonimoa
 - 3.4.4.3 Hiperonimoa
 - 3.4.4.4 Hiponimoa
 - 3.4.4.5 Kohiponimoa
 - 3.4.4.6 Perifrasia
 - 3.4.5 Elipsia

Metodologia

Ikastaroa praktikara zuzendurik egongo da bereziki, eta ariketa praktikoetan oinarrituko da. Dinamika horrek eskola-orduetatik kanpo lan pixka bat egitea eskatuko dio parte-hartzaileari, hainbat testu aztertzeko, berridazteko edo eraikitzeko proposatuko baitzaio. Eskoletan, berriz, funtsezko jarraibideak eman, ikasleen idazlanak aztertu eta zalantzak argituko dira.

Ebaluazioa

Ikasleek prozesua hasten duten egunetik amaitzen duten arte **ebaluazio etengabea** eta **segidakoa** eginez neurtzen da ikasitakoa zenbateraino lortu den. Horrela, hezitzailea heziketa-ekintza osoan ikasleek burutu duten prozesua ezagutzeko, aurreikusteko eta egiaztatzeko moduan da. Ikasketari bakoitzaren abiapuntua ezagutzeko, ebaluazio-ariketa batekin emango zaio hasiera ikastaroari.

. *Zer eta nola*

Ebaluazio etengabea ikastaroaren plangintzan (lan-egitasmoan) proposatutako jardueri buruzko lanetan oinarrituta burutzen da, baita ikastaroan izandako parte-hartzetik / jarraipenetik abiatuta ere.

Jarduerak proposatutako xede-helburuen lorpenari buruzko iritzien arabera neurtzen dira, eta balorazioak era honetara burutzen:

- . **A** (*Oso jarduera ona*, eskuratutako ezagutzei berrikuntzak eta originaltasuna eransten die.)
- . **B** (*Jarduera ona*, proposatutako helburuak kalitatez landu direla adierazten du.)
- . **C** (*Jarduera zuzena*.)
- . **D** (*Proposatutako helburuak gaitzitu ez izana* adierazten du.)
- . **E** (*Proposatutako helburua erdiesten parte hartu ez izana* adierazten du.)

Ikastaroa gaitzitzeko beharrezkoa da: **1** Ikasgelan egin beharko diren jardueretatik gutxienez % 75 burutu izana, eta horietako bakoitzean gutxienez C kalifikazioa lortzea. **2** Eta aurrez aurreko ikastaroan, gainera, ordu-kopuruen % 80an bertan egotea.

. Helburu operatiboak lortu diren baloratzeko, ikasle bakoitzak ondoren zehaztuko den/diren ataza(k) egin beharko d(it)u.

Helburu operatiboak	Atazak
1 Kohesioa zer den ulertzea: baliabideen definizioa. Glosarioa.	- Esaldi sorta bat emanda, aztertu zer baliabide erabili diren ideiak kohesionatzeko. Izena eman.
2 Kohesio-emaileen zerrendak aztertea: zertarako eta nola erabiltzen den bakoitza.	-Irizpide teorikoak eman: zalantzak eta uste ustelak. -Adibideak aztertu eta ahots gora irakurri. -Adibideak asmatu. -Esaldi kaxkarrak berridatzi. -Hutsuneak bete.
3 Paragrafoak eraikitzea ideiak lotuz.	-Paragrafo txukunak aztertu. -Kohesio-arazoak detektatu testuetan. -Testu arazotsu laburrak berridatzi.
4 Ikastea nola baliatu kohesioa testuaren haria/ardatza eraikitzeko (TEMA-REMA segida).	-Ardatz arazoak dituzten testuak berridatzi. -Testu laburrak idatzi ideia zerrenda bat emanda. -Erreparatu testu on baten ardatzari, eta testu berria idatzi ardatz bera erabilita.

Bibliografia

- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-1 (Eranskina)*, "Hitz-ordena". Bilbo, 1987
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Bilbo, 1990
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak)*. Bilbo, 1994
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak)*. Bilbo, 1999
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-VI (Mendeko perpausak 2)*. Bilbo, 2005
- MENDIGUREN, Xabier: *Testu itzuliaren organikotasuna*. Senez aldizkaria, 1990
- ALBERDI, Andres: *Eskola Gramatika*. Elkar. Donostia, 1996
- IVAP: *Hizkera argiaren bidetik*. IVAPen Argitalpen Zerbitzua. Donostia, 1994
- IVAP: *Argi idazteko bideak*. IVAPen Argitalpen Zerbitzua. Donostia, 1995
- IVAP: *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*. IVAPen Argitalpen Zerbitzua. Donostia, 1997
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello: *Idazkera-liburua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1993
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon: *Jokaera-liburua*. Sendoa. Oiartzun, 1995
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello: *Irakurbideak*. Sendoa. Oiartzun, 1997
- ESNAL, Pello: *Koherentziaz*. Jakin aldizkaria, 107. zk., 1998
- ESNAL, Pello: *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Euskaltzaindia, 2008
- ESNAL, Pello: *Testu-arkitektura eta Gramatika, ekintza komunikatiboaren baitan*. HABE: Hizpide, 71. zenb., 2009
- ESNAL, Pello: *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Euskaltzaindia, 2011
- ZABALA, Igone eta beste batzuk: *Testu-loturarako baliabideak: Euskara Teknikoa*. EHU. Bilbo, 1996
- ZOCK, Michael: *Arianaren Haria*. HABE. Itzulpen saila, 31. zk. Donostia, 1992
- HABE: *Euskaldunak euskaraz jазten*. Donostia, 1992
- CASSANY, Daniel: *Sustraietatik zerura*. HABE. Donostia, 2013
- BUTRON, J.; DE PEDRO, J.: *Testuak aztertzen*. Nafarroa, 1994
- BASURTO, Aitor: *Idazketa ikasgelan*. Abegi euskaltegiak. Lizarra, 1994
- EZEIZA, Joseba; LEKUONA, Maite; ALTUNA, Eli: *Esalditik testura*. Gaiak. Donostia, 1995
- EZEIZA, Joseba; EZEIZA, Ainhoa: *Euskararen erabileran murgiltzen*. Gaiak. Donostia, 1996
- EZEIZA, Joseba: *Testuaren Harian. Euskal Esaldiaren Estilistika*. Gaiak. Donostia, 1996
- GARZIA GARMENDIA, Juan: *Joskera Lantegi*. IVAP. Zarautz, 1997
- ONIEVA MORALES, Juan: *Curso Básico de Redacción*. Verbum. Madril, 1991
- ONIEVA MORALES, Juan: *Curso Superior de Redacción*. Verbum. Madril, 1995
- MARTIN VIVALDI, Gonzalo: *Curso de Redacción*. Paraninfo. Madril, 1986
- SERAFINI, M^a Teresa: *Cómo redactar un tema. Didáctica de la escritura*. Paidós. Bartzelona, 1989
- SERAFINI, M. Teresa: *Cómo se escribe*. Paidós. Bartzelona, 1994
- CASSANY, Daniel: *Describir el escribir. Cómo se aprende a escribir*. Paidós. Bartzelona, 1989
- CASSANY, Daniel: *Reparar la escritura. Didáctica de la corrección de lo escrito*. Graó. Aula. Bartzelona, 1993
- CASSANY, Daniel; LUNA, Marta; SANZ, Glòria: *Enseñar lengua*. Graó. Aula. Bartzelona, 1994

CASSANY, Daniel: *La cocina de la escritura*. Anagrama. Bartzelona, 1995

CALSAMIGLIA, Helena; TUSÓN, Amparo: *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Ariel. Bartzelona, 1999

GOLDBERG, Natalie: *El Gozo de Escribir*. Los Libros de la Liebre de Marzo. Bartzelona, 1993

CASADO VELARDE, Manuel: *Introducción a la gramática del texto del español*. Cuadernos de Lengua Española. Arco/Libros, S.L. Madril, 1993

“IDAZKUNTZA ETA AHOSKERA” FORMAZIO-ZIKLOA (150 ORDU)

I Idazkuntza: hiru modulu (108 ordu)

I.1 HIZKUNTZ KALITATEAREN OINARRIAK (45 ORDU)

. Helburuak

- 1 Zuzentasun gramatikaletik testurako pausoa ematea.
- 2 Prosamolde komunikatiboa bermatzeko irizpideak aztertu eta lantzea.
- 3 Gaur eguneko prosaren gaineko gogoeta bultzatzea.

I.1.1 “Prosamolde komunikatiboa: hitz-ordena” azpimodulua (15 ordu)

Hitz-ordena aspaldiko kezka da euskararen erabiltzaile guztiontzat. Ondo jabeturik gaude oinordetzan jaso ditugun Azkue/Altuberen lege zaharrak oztopo handia direla testu komunikatiboak ekoizteko orduan. Erabilera zurrin horri aurre egin nahian, gaur egun, izugarri zabaldu da aditza aurreratzeko aholkua. Jarraibide nahikoa da hori esaldi argiak sortzeko? Non kokatu gainerako elementuak, zeren arabera antolatu? Zenbateraino da euskara ordena libreko hizkuntza?

Hitz-ordenaren ikuspuntu gramatikala atzean utzi, eta jostera komunikatiboan murgilduko gara. Batetik, nazioarteko prosan erabiltzen diren termino ugari argitzen eta bereizten saiatuko gara: Tema/Rema, Mintzagaia/Iruzkina, Topikoa/Predikazioa, Galdegaia/Fokua... Eta, bestetik, adibideetan eta testu eredugarrien azterketan oinarrituz, ikusiko dugu nola aplikatu daitezkeen TEMA-REMA segida hiru mailatan: hitzak esaldian antolatzeke, esaldiak elkarri josteko eta egitura emateko testuari.

I.1.2 “Puntuazioa” azpimodulua (15 ordu)

Baliabide nagusietako bat da testu idatziaren egitura eta edukia antolatu eta egituratzeko. Esaldiak eta paragrafoak non hasi eta non amaitzen diren adierazteaz gain, ideien arteko hierarkia eta harremanak zehazten ditu.

Puntuazio-zeinu guztien erabilera ohikoenak ikusiko dira, lan teorikoen zein literatur testuen argitan, eta auzi nagusiak aztertuko.

I.1.2 "Argitasuna" azpimodulua (15 ordu)

Euskararen estiloa ardatz harturik, testu argiak idazteko irizpideak landuko dira, batez ere erdal interferentzia lexiko zein sintaktiko batzuen ondorioez ohartuz eta euskarazko eredu egokiak ikusiz.

Prosa korapilatzen duten gaiak jorratuko dira, nagusiki nominalizazioak, aposizioak, erlatibozko perpausak eta gerundioak.

I.2 IDAZKUNTZAREN HASI-MASIAK (42 ORDU)

. Helburuak

- 1** Testugintzaren alderdi funtsezkoak lantzea: egokitasuna, koherentzia eta kohesioa.
- 2** 1. moduluan ikasitako baliabideak testu idatzietan aplikatzea.

I.2.1 "Koherentzia" azpimodulua (21 ordu)

Egitura ematen dio testuari. Baliabideak eskainiko dira pentsamenduaren adierazpide logikoa gauzatu eta ideien aukera, hurrenkera eta garapen egokia bermatzeko: tesiaren garabideak, paragrafoa, ideien arteko hierarkia, diskurtsoaren ardatza, testuaren batasuna.

I.2.2 "Kohesioa" azpimodulua (21 ordu)

Idatziaren barne-lotura gauzatzen du. Baliabideak eskainiko dira, ideiak behar bezala lotu eta haien arteko harremanak modu egokian adierazteko: juntagailuak, menderagailuak, lokailuak, antolatzaileak, erreferentzia-bideak, ordezkapen semantikoak.

I.3 TESTUGINTZA (21 ORDU)

. Helburuak

- 1** Testuari osotasunean erreparatzea, helburu komunikatiboa kontuan hartuta.
- 2** Testuari egitura sendoa ematearen garrantziaz jabetzea.
- 3** Testu osoak ekoiztea.

. Edukiak

Idazkuntza-teknikak.- Informazioa testuan antolatzeko teknika oinarritzkoak: testu- eta paragrafo-motak.

II Ahoskera: bi modulu (42 ordu)

Ahots gorako irakurketa: paperetik ahora

Azken urteotan, ahozotasuna lantzeko beharraz hitz egiten da irakaskuntzaren esparru guztietan.

Jabetu beharrean gara alferrikako ahalegina dela hizkuntza bat irakatsi nahi izatea hitza buruarekin (paperarekin) soilik lotzen badugu, benetako komunikazio-egoera batean ari garenean geure izatea oso-osorik inplikatzeko baitugu prozesuan: burua, emozioak, gorputza eta arima.

Itziar Rekalde, ipuin-kontalaria eta antzerkilaria
Bihotza gainezka dagoenean mintzo da ahotsa.

Gogol (1809-1852) errusiar idazlea
Arimaren eta bihotzaren soinuak, hitzen bidez adierazten direnean, askoz ere anitzagoak dira musikarenak baino.

Stanislavski (1863-1938) errusiar aktore, eszena-zuzendari eta antzerki-pedagogoa
Hizketa xume eta ederraren jabe izatea erabateko zientzia da eta, ondorioz, bere lege propioak behar ditu.

II.1 EUSKARAREN PROSODIARANTZ (21 ordu)

. Helburuak

- 1 Irakasleak trebatzea irakurketa zuzena eta euskal doinuaren araberakoa egiten.
- 2 Ikasitakoa ikasgelan berehala aplikatzen hastea, hiru mailatan: irakasleak testuliburuetaiko zein bestelako testuak ikasleen aurrean irakurtzeko, ikasleen ahots gorako jardunak zuzentzeko eta ikasleei jarraibideak emateko ahoskeraren inguruan.
- 3 Baliabideak eskuratzea, irakurmena eta ahoskera lantzeko.
- 4 Baliabideak eskuratzea, ikaslearen komunikazio-gaitasuna garatzeko.
- 5 Ahoskerarekin zerikusia duten alderdien gaineko eztabaida eta hausnarketa bultzatzea.

Testu idatziak ahots gora irakurtzen ikasiko dugu. Horretarako, ahoskera-arauak abiapuntutzat hartu eta *euskara naturala* bermatzen duten prosodia-gaiak (azentua eta intonazioa) jorratuko ditugu.

. Edukiak

- 1 Ahoskera zuzena: Euskaltzaindiak arautua
- 2 Mintzamolde jatorra: euskal doinua
- 3 Hausnarketa: erregistroak, euskalkia/batua

II.2 TESTU-INTERPRETAZIOA (21 ordu)

. Helburuak

- 1 Testuak interpretatzen ikastea.
- 2 Euskal literaturaren testu ugari ezagutzea.
- 3 Beste bide bat ezagutzea irakurmena eta ahoskera lantzeko, baita ikasleak literaturara hurbiltzeko ere.
- 4 Komunikazio-gaitasuna garatzea.
- 5 Baliabideak garatzea, irudia, emozioa, gorputza eta hitza elkarri lotzeko.
- 6 Beldur eszenikoa gainditzea.

Testu idatziak interpretatzen ikasiko dugu. Hasiera batean, irakurketa dramatizatuaren bidez; aurrerago, berriz, testuak buruz ikasiz.

. Edukiak

- 1 *Komunikazio egokia eta eraginkorra*: mezua entzulearengana argi iristea lortzen duena.
- 2 *Adierazpide bizia eta naturala*: hitzak hitzunaren inplikazio osoa daukanean agertzen dena.
- 3 *Gogoeta*: ahoskeraren trataera ikasgelan.